

Autoebaluazioa

2. ARIKETA

(10 PUNTU)

Paired Data paketea kontsideratuko dugu.

- a) Instalatu eta kargatu **PairedData** paketea. (0.5 puntu)

PairedData paketearen barnean dagoen **IceSkating** datu-markoa kontsideratuko dugu.

- b) Laguntza erabiliz, azaldu **IceSkating** datu-markoak ematen duen informazioa. (0.5 puntu)
- c) Bistaratu **IceSkating** datu-markoa. (0.5 puntu)
- d) Zein patinatzailek behar du bira egiteko 2 m/s baino gehiago bai zango luzatuta eta baita hanka flexionatuta duelarik? (puntu 1)
- e) Zein patinatzailek behar du denbora gutxien biraketa egiteko zangoa flexionatuta edukirik? Eta zangoa luzatuta? (puntu 1)
- f) %90eko adierazgarritasun mailaz, biraketa abiadura neurtzen duten aldagaiek banaketa normala jarraitzen duten adierazi. (2.5 puntu)
- g) Patinatzaileak zangoa luzatuta izatean lortzen duten biraketa-abiaduraren bariantzaren puntu-estimazioa eman. (0.5 puntu)
- h) %90eko konfiantza mailaz, patinatzaileak zangoa flexionatua izatean lortzen duten biraketa-abiaduraren bariantzaren tarte-estimazioa egin. (puntu 1)
- i) %90eko konfiantza mailako konfiantza-tartea erabiliz, patinatzaileak zangoa luzatuta izatean lortzen duten biraketa-abiadura, zangoa flexionatua izatean lortutakoaren berdina den aztertu. (2.5 puntu)